

GELA IREKIAK

2011-2012 IKASTURTEAN ABIAN JARTZEKO
ANTOLAKETARI BURUZKO PROPOSAMENA

Mendialdea Ikastetxe Publikoa
HAUR HEZKUNTZAKO TALDEA

SARRERA

Ikastetxean Haur Hezkuntzako etapan gure antolaketari eta gelako espazioei buruzko gogoeta egiten ari gara eta honen ondorioz materialei buruzkoa baita ere.

Gogoeta honetatik abiatuz, heldu den urterako proiektua lehen aipatutako elementuen (antolaketa orokorra, espazioak eta materialak) berrantolaketa izanen da.

Aldi berean irakasle bezala betetzen dugun papera eta jarrera ere aztertu nahi dugu (behaketa, protagonismoa, dokumentazioa...).

Gogoeta guzti hauek eskolak duela urte batzuk hartutako bidearen ondorio da, abiapuntua Psikomotrizite Praktika Hezitzailea izanik. Aurten, bide honetan beste urrats bat eman dugu ikerketa eta esperimentazio gunea (tailerra) martxan jarriz. Hurrengo pausoa ondoren azalduko dugun Gela Irekien proposamena litzateke.

ORAIN ARTEKOAREN GOGOETA

- **ESPAZIO ANTOLAKETA**

- **TXOKOAK:** kopurua, espazio falta, behatzeko ezintasuna, txoko guztietatik pasatzeko obligazioa,...
- **MATERIALAK:** material didaktikoak (zer eta zenbat) eta altxariak
- **GELAK FISIKOKI BEREIZTUAK:** Eskolan 2 edo 3 lerro ditugu adin bakoitzean. Espazialki ere, 3 gune ezberdinetan gaude kokatuak.

- **DENBORA ANTOLAKETA**

- **ERRUTINAK:** Nork (makinista, arduraduna), zein modutan eta zertarako?
- **EGUNAREN DENBORALIZAZIOA:**
 - JARDUERA EZBERDINEN ANTOLAKETA (psikomotrizitatea, ingelesa, tailerrak, erlijio...)
 - ORDUTEGIA

•TALDEKATZEAK

- **GELA BARRUKOAK:** Gure irizpideen arabera antolatutakoak (irakasleak finkatutako lan taldeak txokoz-txoko pasatzen direnak edo ikasleek aukeratuko txoko mugatuetan momentuko taldekatzeak).
- **GELEN ARTEKOAK:** Ez da gelen arteko komunikazioa eta elkarrekintza ahalbidetzen.

•IRAKASLEAREN JARDUERA

- IRAKASLEAK JARRAITZEN DU IZATEN
PROTAGONISTA
- BEHATZEKO ZAILTASUNA
- DOKUMENTAZIO EZA
- KOORDINAZIO FALTA

•**LEHEN ZIKLOAREKIN HURBILPENA:** Etapen arteko komunikazio eta elkarrekintza falta.

•**FAMILIEKIN HARREMANA:** Momentu puntualetan izan ezik, ez dago apenas harremanik.

URRATS BERRIAK

Egindako hausnarketen ondorioz, HH-ko irakasle taldeak urrats berriak emateko beharra ikusi du:

- * Egungo ingurune sozialeko pribatizazioak gure geletan daukan eragina gainditzea, harreman sare konplexu eta errealagoak eskainiz.
- * Globalizazioaren ideia esparru ezberdinetan islatzea, errutina eta txokoen antolaketa gaindituz.
- * Ideien zirkulazio librea bultzatzea, ikaskuntza esanguratsua bultzatuz.

* Irakaslea haur-nortasunaren eraikuntza prozesuan bidelagun izatea, haurren protagonismoa handituz.

* Ikasgela etxe-girora, giro atsegin eta goxo batera hurbiltzea, eskola isolatutako espazio itxi baten irudiarekin hautsiz.

* Familia eta komunitatearekin harremanak indartzea, elkarrekintza sustatuz.



**Gure gelak mundura ireki nahi ditugu,
GELA IREKIAK
izateko prozesua jarri nahi dugu martxan.**

GELA IREKIAK

Urtez urte gela kopurua aldatzea denez, proposatzen dugun antolaketak malgua izan behar du (espazioen antolaketa fisikoa).

Datorren ikasturteari begira, hauek dira proposatzen ditugun talde-egiturak:

- * 3 urtekoak
- * 4 urtekoak
- * 5 urtekoak

Ezinbestekoa da talde-egitura hauetako bakoitza fisikoki elkarrekin egotea, lan egiteko filosofia hau aurrera atera ahal izateko.

TALDEKATZEAK

- **ERREFERENTZIA TALDEA:** Irakasle bakoitzak bere taldea izango du, talde bakoitzak bere identitate propioa izanen duen modurik. Horregatik talde bakoitzak fisikoki bere gela izanen du, non, biltzeko gunea, proiektuak garatzeko gunea, lanak sortu eta gordetzeko gunea,... izango dituen.
- **IKASGELEN ARTEKO TALDEKATZEAK:** Ideien zirkulazio librea bultzatuz, maila berdineko ikasleen arteko elkarrekintza sustatuko da, 3 geletan (gela irekiak) antolatutako espazioetan. Talde egitura bakoitzean espazioak ez dira errepikatuko, aukera ezberdinak ahalbideratuz.

DENBORAREN ANTOLAKETA

ORDUTEGIAREN ANTOKETA.

LEHENENGO 3 SAIOAK:

- SARRERAKO ERRITUALA: Ikasleen sarrera "malgua" (gehienak autobusez etortzen diren arren). Nork bere ikasgelan motxilak utzi eta etxeko zapatilak jartzeko unea (eskola etxe girora hurbiltzeko).
- GELA IREKIAK: Ideien zirkulazio librea, antolatutako espazio ezberdinetan (bukatu aurretik, 5 min. falta direla abisatu).
- ERREFERENTZIA TALDEA: Ipuina (deszentraziorako zubi gisa) eta gosaria

[JOSTALDIA]

GOIZEKO AZKEN SAIOA; ERREFERENTZI TALDEA: Proiektuak

[BAZKALORDUA]

ARRATSALDEKO 2 SAIOAK:

- IKASLEEI HARRERA (zapatilak aldatu)
- GELA IREKIAK
- IRTEERAKO ERRITUALA: erreferentzi taldean agurra.

JARDUERA EZBERDINEN ANTOLAKETA (GLOBALITATEA ETA IKASKUNTZA ESANGURATSUA)

➤ PSIKOMOTRIZITATE PRAKTIKA HEZITZAILEA

Astean behin, bi saio jarraian tutorea eta psikomotrizitatean formatutako laguntzako irakaslearekin (tutorea psikomotrizitatean dagoenean gela irekietan berari dagokion espazioa itxita egongo da).



- **INGELESA**
Ingeleseko irakaslea espazio berean bi saio jarraian egotea proposatzen da.
- **TAILERRA**
Bi espazio izango ditu tailerrak. Bat, talde txikietan joku heuristikoa eta esperimendua garatzeko izango da. Bestea, geletan sortutako galderari erantzuteko edo jakinmina asetzeko laborategia.

- Arlo hauek guztiak eta gelako jarduerak lan filosofia berarekin jorratu nahi ditugu, guztien arteko koherentzia bilatuz.
- Ingelesa eta tailerra gela irekien planteamenduan nola txertatu hausnartzen ari gara.

ESPAZIO ANTOLAKETA

3 urtetan hiru talde izango ditugunez, egitura modu honetan antolatuko dugu*.

JOKO HEURISTIKOA (poliki-poliki eraikuntza txokoa izango dena)	ADIERAZPEN GRAFIKOA ETA MARRAZKETA	MAHAI JOLASAK
BARRUKO PATIOA (Lorategia)		

* Adin honetan egokitzapen prozesuari garrantzi handia ematen diogu. Aldi honetan talde bakoitza bere gelan jardungo da txoko ezberdinetan eta tutorearekin. Progresiboki gela irekien dinamikan hasteko antolaketa txertatuz joango da.

ESPAZIO ANTOLAKETA

4 urtetan bi talde izango ditugunez, egitura modu honetan antolatuko dugu.

MAHAI JOLASAK

+

ADIERAZPEN GRAFIKOA ETA
MARRAZKETA

ERAIKUNTZAK

+

(JOLAS SINBOLIKOA?)

ESPAZIO ANTOLAKETA

5 urtetan hiru talde izango ditugunez, egitura modu honetan antolatuko dugu.

ERAIKUNTZAK	ADIERAZPEN GRAFIKOA ETA MARRAZKETA	MAHAI JOLASAK
PASABIDEA (ESPAZIOA KOMUMA DENEZ, ZERBAIT BIZIA BEZALA IKUSTEN DUGU)		

Antolaketa honekin espazioen egituraketaz gain lanak hasi eta bukatzeari eman nahi diogu garrantzia, horregatik geletan produkzioen iraunkortasuna bermatuko dugu. Gainera, antolaketa honek baliabide materialen aprobetxamendu egokiagoa egiteko aukera ematen digu: zer, zenbat eta zertarako.

ESPAZIO BAKOITZEKO ANTOLAKETAREN BEREZITASUNAK

Espazio horietako bakoitza antolatzerakoan zenbait puntu izanen ditugu kontuan:

- Erreferentzia taldea biltzeko lekua: Harrera, ipuina, proiektuak... Espazio hau zabala izanen da, gela irekiak daudenean ere erabiliko dena baina gero taldea biltzen denerako libre geratu beharko dena.
- Espazio bakoitzean produkzioen iraunkortasuna bermatzeko gunea egon beharko du.
- Altzariak beraien neurrirako egokiak izan behako dira, bajuagoak, espazioa irekiagoa izateko, aldi berean beraiak autonomoago izateko eta haien produkzioak utzi eta ikusteko.

- Taldekide guztiak elkarrekin gosaltzeko edo lan kolektiboak egiteko mahaiak beharko dira.
- Lantzen ari den proiektuen inguruko informazioa eta materiala jasotzeko espazioa egonen da.
- Orokorrean gelako giroari garrantzi handiagoa emango zaio; estetika, goxotasuna, argitasuna, zabalatasuna, ... zainduz. Guzti honekin eta etxeko goxotasuna bilatzeko asmoz, kuxinen eta etxeko zapatilen erabilera bultzatuko dugu.



IRAKASLEAREN IKUSPEGIA

- IKASLEEKIKO IZAN BEHARREKO JARRERA: Segurtasun eta lasaitasun giroa ahalbideratu. Jarduerak planifikatu. Libreki adieraztea erraztu. Akatsa onartu. Iritzi negatiboak egitea ekiditu. Prozesua baloratu eta ez bakarrik emaitza. Ordena, autonomia,... ohiturak sustatu. Gidaritza jarrera baino, behaketa jarrera izan. Bizipen guztiak bildu.
- IKERKETARAKO ETA BERRITZEKO GOGOIA IZAN.
- KOORDINAZIOA ETA TALDE LANA: Antolaketa honekin beharrezkoa da Haur Hezkuntzako irakasle guztien arteko koordinazioa eta komunikazioa etengabea eta egokia izatea.
- DOKUMENTAZIOA: Modu honetan gure lana behaketan oinarritzen denez, gertatzen dena jaso eta dokumentazteak esanahi eta garrantzi berezia hartzen du.

ONDORIOAK

Honekin guztiarekin gure ikasleengan progresiboki bultzatu eta garatu nahi ditugun jarrera eta gaitasunak hauek dira: autonomia, kritikotasuna, sormena, komunikazio trebetasuna, ikuspegi zabala eta harremanetan irekia, elkarbizitza eta elkarlanerako disposizioa, ordena, segurtasuna, nor bere buruaren jabe izatea, errespetua, jakinmina izatea, ingurunearekiko konprometitua izatea.



BIBLIOGRAFIA

- EQUIPO DE PROFESORES DE ANTZUOLA: El aula de preescolar: su diseño espacial (curso 80/81 – curso 86/87: la génesis de los propios educares en su modo de concebir el diseño espacial del aula). Colegio Público de Antzuola, 1987.
- Equipo de Educación Infantil y Primer Ciclo de Primaria del CP Antzuola: <<Niños y niñas investigadoras: ¿De qué hablamos?>>, *Revista Aula de Infantil*, nº 1, mayo-junio 2001.
- Equipo de Educación Infantil y Primer Ciclo de Primaria del CP Antzuola: <<Escucha lo que hago. Intereses y propuestas como punto de partida de la actividad>>.
- Equipo de Educación Infantil y Primer Ciclo de Primaria del CP Antzuola: <<Infantil y primaria ¿Dos mundos independientes?>>, *Revista Cuadernos de Pedagogía*, nº 282, julio-agosto 1999.
- Meritxell Bonàs Solà: <<El Martinet, una comunidad en crecimiento>>.